

SASIETA MANKOMUNITATEAREN EREMUKO HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA 2000-2007 ALDIAN



2008ko martxo

1. ZATIA:

- **Xede-biztanleria**
- **Gaikako paper- eta kartoi-bilketa**
- **Ontziki arinen gaikako bilketa**
- **Gaikako beira-bilketa**
- **Pilen eta mugikorren gaikako bilketa**
- **Ehun-hondakinen (erabilitako arropa) gaikako bilketa**
- **Inausketa- eta lorezaintza-hondakinen gaikako bilketa**
- **Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen gaikako bilketa (TEEH)**
- **Etxeko gauza handien hondakinen gaikako bilketa**
- **Etxeko hondakin arriskutsuen gaikako bilketa**
- **Erabiltzen ez diren pneumatikoen gaikako bilketa**
- **Sukaldeko olio-hondakinen gaikako bilketa**
- **Zur-hondakinen gaikako bilketa**
- **Metal-hondakinen gaikako bilketa**

2. ZATIA:


- **Hiri-hondakinen isurpenak 2000-2007 aldian izan duen bilakaera.**
- **Hiri-hondakinen sorkuntzak 2000-2007 aldian izan duen bilakaera.**
- **Hiri-hondakinen gaikako bilketak 2000-2007 aldian izan duen bilakaera.**
- **Ondorio gisa.**

Xede-biztanleria:

2007. urtean **67.122 biztanle** hartu ditugu eraginpean (Estatistikako Institutu Nazionalaren —EIN— Udal Erroldaren arabera), hau da, 2006. urtean baino **806 biztanle gehiago**.

2005. urteaz geroztik, hau izan da Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrien biztanleria asko hazi den segidako hirugarren urtea.

2000-2004 aldian biztanleria egonkorra izan da. Hazkunde demografikoa 2005. urteaz geroztik hasi da nabarmena izaten. Hala ere, egia da urterik urteko hazkundeak ez direla bereziki handiak izan. 2000. urtetik 2007. urtera, biztanleria % **2,8** hazi da oro har.



Honako taula honetan, Sasieta Mankomunitateko biztanleriak 2000-2007 aldian **udalerriz udalerrri** izandako bilakaera ageri da.

Udalerrria	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Alzaga	98	109	116	133	148	154	153	156
Arama	167	165	163	166	163	164	173	184
Ataun	1.558	1.551	1.534	1.514	1.514	1.531	1.574	1.599
Beasain	12.134	12.144	12.257	12.326	12.442	12.586	12.682	12.932
Ezkio-Itsaso	555	568	573	561	570	572	549	570
Gabiria	430	424	426	442	419	420	429	434
Gaintza	133	137	136	129	125	122	132	136
Idiazabal	2.038	2.025	2.019	2.054	2.124	2.162	2.166	2.187
Itsasondo	588	581	581	564	554	565	591	610
Lazkao	4.876	4.880	5.003	5.064	5.064	5.113	5.123	5.203
Legazpi	8.958	8.851	8.785	8.730	8.673	8.665	8.610	8.621
Legorreta	1.399	1.373	1.370	1.371	1.363	1.375	1.414	1.439
Mutiloa	165	163	158	159	156	168	200	218
Olaberria	923	936	919	900	918	918	920	936
Ordizia	9.089	9.039	9.021	8.962	8.926	9.025	9.188	9.339
Ormaiztegi	1.159	1.173	1.161	1.194	1.242	1.249	1.268	1.301
Segura	1.247	1.246	1.238	1.234	1.234	1.230	1.250	1.319
Urretxu	6.428	6.521	6.604	6.665	6.667	6.723	6.778	6.761
Zaldibia	1.525	1.508	1.508	1.511	1.481	1.477	1.446	1.463
Zegama	1.276	1.293	1.307	1.300	1.307	1.303	1.348	1.407
Zerain	246	247	251	252	249	243	244	248
Zumarraga	10.300	10.270	10.265	10.173	10.115	10.070	10.078	10.059
GUZTIRA	65.292	65.204	65.395	65.404	65.454	65.835	66.316	67.122

Aurreko taulan ikus daitekeenez, biztanleriaren % 79 5.000 biztanletik gorako 6 udalerritan biltzen da, udalerrri bereziki "hiritarretan" bildu ere. Gainerako % 21a, berriz, 500-5.000 biztanleko 9 udalerrri "erdi-hiritarretan" eta 500 biztanle baino gutxiago dituzten 7 udalerrri "landatar" edo biztanleria sakabanatukoetan biltzen da.


	Udalerrriak	Biztanleak	%
5.000 biztanle baino gehiago	6	52.915	%79
500-5000 biztanle artean	9	11.232	%17
500 biztanle baino gutxiago	7	2.975	%4
	22	67.122	%100

Gaikako paper- eta kartoi-bilketa:

2007. urtean, **paper- eta kartoi-bilketa, guztira**, zertxobait igo da, aurreko urtearekin alderatuta (% 1 besterik ez).


Urtea	Edukiontzi urdinaren bidezko paper- eta kartoi-bilketa	Atez ate bildutako kartoia	Garbigunean bildutako kartoia	URTEAN GUZTIRA	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	2.011.960	801.590	53.630	2.867.180	43,9
2001	1.993.730	784.900	60.060	2.838.690	43,5
2002	2.019.560	776.460	50.040	2.846.060	43,5
2003	2.074.860	823.640	51.200	2.949.700	45,1
2004	2.296.060	1.069.420	56.080	3.421.560	52,3
2005	2.485.320	1.063.020	67.520	3.615.860	54,9
2006	2.536.600	1.140.720	92.420	3.769.740	56,8
2007	2.589.760	1.139.360	77.620	3.806.740	56,7

EDUKIONTZI URDINEN BIDEZ, ATEZ ATE ETA GARBIGUNEAN PAPER- ETA KARTOI-BILKETAK IZANDAKO BILAKAERA SASIETA MANKOMUNITATEAN 2000-2007 ALDIAN (kg/urte)




- Klean instalatutako **edukiontzi urdin** bidez egindako bilketa zertxobait igo da berriz ere (% 2 gehiago), aurreko urteetako goranzko antzeko joerari jarraiki. 2.400 litroko edukierako 287 paper-edukiontzi urdin eta 1.000 litroko 30 instalatu dira.
- **Merkataritza-kartoiaren** bilketa aurreko urtekoaren berdintsua da, eta egonkor dirau, gorabehera handirik gabe, aurreko urteetako antzeko mailetan.

- Urretxuko **garbigunean berreskuratutako kartoiari** dagokionez (garbigune hori da oraindik mankomunitatearen eremuan jardunean dagoen bakarra), kopurua handia da, baina ez da 2006. urtekoaren adinakoa izan.



2007. urteko gaikako paper- eta kartoi-bilketaren **per capita indizea 56,7 kg** izan da **biztanle eta urte bakoitzeko**. Indize hori 2006. urtekoaren berdintsua da. Egia esan, **oso indize handia** da, eta, horregatik, urtetik urtera gero eta zailagoa izango da gainditzea.

**GAIKAKO PAPER- ETA KARTOI-BILKETA *PER*
CAPITAREN BILAKAERA SASIETA
MANKOMUNITATEAN 2000-2007 ALDIAN (kg/bizt./urte)**




Ontziki arinen gaikako bilketa:

- 2007. urtean, kalean instalatutako edukiontzi horien bidez bildutako ontziki arinen kopurua zertxobait igo da aurreko urteari dagokionez, % 4,7 igo ere. 2.400 litroko edukierako 270 paper-edukiontzi hori eta 1.000 litroko 10 instalatu dira.


Urtea	Edukiontzi horiaren bidez bildutako ontzikiak	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	392.580	6,0
2001	400.290	6,1
2002	424.920	6,5
2003	499.100	7,6
2004	640.320	9,8
2005	609.530	9,3
2006	644.415	9,7
2007	674.795	10,1

GAIKAKO ONTZIKI ARINEN BILKETAREN BILAKAERA SASIETA MANKOMUNITATEAN 2000-2007 ALDIAN (kg/urte)



2007. urtean, **biztanle eta urte bakoitzeko 10 kg-ko *per capita*** bilketa-maila gainditu da lehen aldiz. Oso indize handia da, baita meritu handikoa ere, batik bat kontuan izanik bildutako material gordinean topatutako material “desegoki” edo “eskatu gabeak” —alegia, ontzikiak ez diren eta edozein arrazoi tarteko edukiontzi horian agertzen diren materialak— % 7,32 baino ez direla (betiere ECOEMBES erakundeak egindako material-karakterizazioaren arabera).

Erakunde horrek adierazi duenez, estatuko hainbat hiritan *per capita* bilketa-indize hori askoz handiagoa da, baina hiri horietako askotan material "desegokien" edukia % 30-40era ere iristen da.




Gaikako beira-bilketa:

2007. urtean, kalean instalatutako iglu motako edukiontzi berdeen bidez bildutako beira kopurua nabarmen hazi da aurreko urtearekin alderatuta (% 9,9 gehiago).


Urtea	Iglu edukiontzi berdearen bidez bildutako beira	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	1.468.699	22,5
2001	1.522.165	23,3
2002	1.706.817	26,1
2003	1.841.014	28,1
2004	1.910.902	29,2
2005	1.930.273	29,3
2006	1.937.076	29,2
2007	2.129.208	31,7

Horri dagokionez, ostalaritzara propio bideratutako edukiontziak instalatu dira kalean eta ostalaritza-establezimendu jakin batzuei ontzi txikiak banatu zaizkie ontzi horiek instalatu diren edukiontzi berrietan irauliz hustea errazteko. Horrek, beharbada, nolabaiteko eragina izan du adierazitako hazkundean.



2007. urtean, urteko beira-bilketan **2.000 tonako maila** gainditu da lehen aldiz (hain zuzen ere, 2.129 tona bildu dira), eta kopuru hori pentsaezina zen orain dela urte batzuk.

**GAIKAKO BEIRA-BILKETA *PER CAPITA* REN
BILAKAERA SASIETA MANKOMUNITATEAN 2000-2007
ALDIAN (kg/urte)**



2007. urtean, beira-bilketaren *per capita* indizea **31,7 kg** izan zen **biztanle eta urte bakoitzeko**. Oso indize handia da hori. Estatuko batez besteko kontsumoa biztanle eta urte bakoitzeko 37-38 kg ingurukoa dela kontuan izanik (ECOVIDRIO erakundearen arabera), Sasieta Mankomunitatearen eremuko **birziklatze-tasa % 85en** ingurukoa da, eta indize hori estatuko 2007ko birziklatze-indizea baino askoz ere handiagoa da, biztanle eta urte bakoitzeko 21,05 kg izan baitzen (% 56).


Pilen eta mugikorren gaikako bilketa:

2007. urtean, kalean instalatutako edukiontzi arrosen bidez bildutako pilen kopurua nabarmen igo da aurreko urtearekin alderatuta (% 36,6 gehiago). Ez dugu hazkunde horren zergatia ulertzeko arrazoi objektiborik aurkitzen.

Datu horiek kontuan izanik, pilen eta mugikorren *per capita* bilketaren indizea **200 gramo** da **biztanleko eta urte bakoitzeko**.

Urtea	Pilen eta mugikorren bilketa (1)	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	6.719	0,10
2001	5.696	0,09
2002	5.369	0,08
2003	5.788	0,09
2004	11.584	0,18
2005	8.377	0,13
2006	9.686	0,15
2007	13.173	0,20

(1) Kalean instalatutako edukiontzi arrosen (edukiontzi arrosa) bidezko gaikako bilketakoak eta garbigunean nahiz garbigune mugikorrean entregatu direnak kontuan izanik.




Ehun-hondakinen (erabilitako arropa) gaikako bilketa:

2007. urtean, kalean instalatutako edukiontzi zurien bidez bildutako arropa erabiliaren kopurua nabarmen hazi da aurreko urtearekin alderatuta (% 5,8 gehiago).


Urtea	Ehun-gaien bilketa	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	3.180	0,0
2001	3.130	0,0
2002	3.380	0,1
2003	2.325	0,0
2004	183.254	2,8
2005	188.813	2,9
2006	202.922	3,1
2007	214.715	3,2

Oso deigarria da zenbat arropa erabili jaso den (214 tona urtean); izan ere, herritarrek asko kontsumitzen dutela adierazten du. Kasu askotan, erabiltzeko egoera egokian dagoen arropa izaten da, dagoeneko "modan ez dagoelako" edo desfasatuta dagoelako botatzen dena. Datuek garbi erakusten dute "Zara arrotza" har genezakeena.



2007. urtean, arropa erabiliaren *per capita* bilketaren indizea **3,2 kg** izan zen **biztanle eta urte bakoitzeko**. Indize hori etengabe hazten ari da 2004. urtean edukiontziak instalatu zirenetik.

**GAIKAKO EHUN HONDAKINEN (ERABILITAKO ARROPA)
BILKETA *PER CAPITA* REN BILAKAERA SASIETA
MANKOMUNITATEAN 2000-2007 ALDIAN (kg/urte)**




Inausketa- eta lorezaintza-hondakinen galkako bilketa:

2007. urtean, inausketa- eta lorezaintza-hondakinen bilketa aurreko urtean baino zertxobait txikiagoa izan zen (% 2,5 gutxiago). Dena den, bildutako inausketa- eta lorezaintza-hondakin gordinen kopurua nahiko egonkorra da 2005. urteaz geroztik. Urtetik urtera izaten diren gorabeherak txikiak dira, eta, askotan, aldaketa klimatiko eta plubiometrikoek eragiten dituzte.

Konpostajerako inausketa- eta lorezaintza-hondakin gehienak **udalerrietan biltzen dira** (udalak) eta kalitate handiko konposta egiten da horiekin, jatorrizko materiala purutasun handikoa baita.

Urtea	Inausketa- eta lorezaintza-hondakinen bilketa	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	385.740	5,9
2001	243.780	3,7
2002	267.760	4,1
2003	592.280	9,1
2004	608.330	9,3
2005	567.692	8,6
2006	561.467	8,5
2007	547.165	8,2




Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinen gaikako bilketa (TEEH):

2007. urtean, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinen gaikako bilketa (TEEH) nabarmen hazi zen, % 33 hazi ere.


Urtea	Tresna elektriko eta elektronikoaren bilketa (1)	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	10.480	0,2
2001	22.059	0,3
2002	24.585	0,4
2003	23.274	0,4
2004	28.180	0,4
2005	40.130	0,6
2006	65.272	1,0
2007	86.849	1,3

(1) Gauza handien gaikako bilketan kalean bildutako TEEHak eta garbigunean nahiz garbigune mugikorren entregatu direnak kontuan izanik.

Hazkunde handi hori kalean bildutako TEEHen kopurua asko igo delako gertatu da (% 54,9 gehiago), baita garbigunean entregatu diren TEEHen kopurua asko igo delako ere (% 12,7 gehiago). Garbigune mugikor bidez jasotzen diren TEEHen kopurua oso txikia da, eta gehienbat etxetresna txikiak izaten dira.



2007. urtean, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinen *per capita* bilketaren indizea **1,3 kg** izan zen **biztanle eta urte bakoitzeko**.



Etxeko gauza handien hondakinen gaikako bilketa:

2007. urtean, kalean utzitako etxeko gauza handien hondakinen gaikako bilketa nabarmen hazi zen. 2006. urtean 1.004 tona bildu ziren; 2007. urtean, berriz, 1.212 tona (% 16ko hazkundera).

Hazkunde hori herritarren bizi-mailaren eta kontsumo-ohituren adierazgarria da; izan ere, balio handiko hondakinak botatzen dira (altzariak, telebistak, etxetresna elektrikoak, lastairak, etab.), eta, normalean, krisialdi edo kontsumoa txikiagoa den aldietan hondakin horiek ez dira hain erraz botatzen.

Honako taula honetan ikus daitekeenez, etxeko gauza handien kale-bilketa etengabe hazi da azken urteotan.

KALEAN BILDUTAKO GAUZA HANDIEN HONDAKINEN KUDEAKETA (2000-2007)	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte
Zurezko altzariak	0	0	0	0	421.496	204.438	420.296	659.496
Burdinak eta metalak	0	0	0	0	49.660	82.780	50.340	54.200
TEEH (*)	0	6.505	8.255	5.986	24.493	21.324	31.520	48.840
Birziklatzeko gauza handiak, guztira:	0	6.505	8.255	5.986	495.649	308.542	502.156	762.536
Zabortegirako gauza handiak:	846.020	921.924	888.950	913.900	485.700	782.089	542.340	449.960
KUDEATUTAKOA, GUZTIRA (birziklatzea + botatakoa)	846.020	928.429	897.205	919.886	981.349	1.090.631	1.044.496	1.212.496

Honako taula honetan, gauza handien kudeaketaren 2007. urteko emaitzak aurreko urtekoei dagokienez zehatzago aztertuta daude:

KALEAN BILDUTAKO GAUZA HANDIEN HONDAKINEN KUDEAKETA (2006-2007)	2006		2007	
	kg/urte	%	kg/urte	%
Zurezko altzariak	420.296	% 40,2	659.496	% 54,4
Burdinak eta metalak	50.340	% 4,8	54.200	% 4,5
TEEH (*)	31.520	% 3,0	48.840	% 4,0
Birziklatzeko gauza handiak, guztira:	502.156	% 48,1	762.536	% 62,9
Zabortegirako gauza handiak:	542.340	% 51,9	449.960	% 37,1
KUDEATUTAKOA, GUZTIRA (birziklatzea + botatzekoa)	1.044.496	% 100,0	1.212.496	% 100,0

(*) TEEH = Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak

Gauza handien hondakin ugari sortzen dela kontuan izanik, hondakin horiek izaten duten **jomuga** da datu positibo bakarra, eta hori, ezbairik gabe, bilketa-zerbitzu mankomunatua erabiltzeari esker lortzen da; izan ere, elementu horiek kaletik kentzeaz gain, bereizita kendu ditu zerbitzu horrek, ondoren berreskuratzea ahalbidetzeko.

Bestelako hondakinen bilketan, herritarrak esku hartzen du etxean hondakinak bereiziz; beraz, hondakin horiek gerora berreskuratzean emaitza ona edo txarra lortzeko funtsezkoa da herritarra. Gauza handien hondakinen bilketan, ordea, bilketarako ezarritako egunean etxeko gauzak zaborgunean nahastuta utzi besterik ez du egiten herritarrak.

Aurreko taulan ikus daitekeenez, 2007. urtean, **kalean bildutako etxeko gauza handien % 62,9 birziklutzerara bideratu zen** (2006. urtean, berriz, % 48,1). Bestela esanda, 2007an, bildutako etxeko gauza handien % 37,1 besterik ez ziren zabortegian bota (2006. urtean, berriz, % 52).

Birziklatu ziren etxeko gauza handiak **zura** (zurezko altzariak) **aprobetxatzeko** instalazioetara, **metalak** (burdinak eta metalak) **berreskuratze**ko instalazioetara eta **tresna elektriko eta elektroniko**en hondakinak **birziklutzerako** instalazioetara bideratu ziren.

Oso nabarmenak dira gaikako zur-bilketan (altzariak) eta tresna elektriko eta elektroniko

Bestalde, honako taula honetan ikus daitekeenez, **garbigunean** ere TEEH ugari jasotzen da; “garbigune mugikorrek” deitzen zaien furgoneta ibiltarrietan, berriz, askoz ere gutxiago jasotzen dira. Furgoneta horiek udalerrri jakin batzuetara joaten dira hilean behin TEEHak eta sukaldeko olio


GARBIGUNEAN ETA GARBIGUNE MUGIKORREAN ENTREGATUTAKO GAUZA HANDIEN HONDAKINEN KUDEAKETA (2000-2007)	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte	kg/urte
Garbigunean bildutako TEEH (*)	0	19.236	13.978	17.288	23.161	18.806	33.208	37.442
Garbigune mugikorrean bildutako TEEH (*)	0	0	0	0	0	0	544	567
Birziklutzerako gauza handiak, guztira:	0	19.236	13.978	17.288	23.161	18.806	33.752	38.009

(*) TEEH = Tresna elektriko eta elektroniko

Honako taula honetan, Sasieta Mankomunitatean 2000-2007 aldian birziklutzerara bideratutako etxeko gauza handien gaikako bilketaren bilakaeraren laburpena ageri da (kg/urte).



Urtea	Birziklatzera bideratutako etxeke gauza handiak (1)	Zaborte gira botatutako etxeke gauza handiak	Kudeatutako etxeke gauza handiak, guztira
2000	0	846.020,0	846.020
2001	25.741	921.924,0	947.665
2002	22.233	888.950,0	911.183
2003	23.274	913.900,0	937.174
2004	518.810	485.700,0	1.004.510
2005	327.348	782.088,7	1.109.437
2006	535.908	542.340,0	1.078.248
2007	800.545	449.960,0	1.250.505

(1) Kalean, garbigunean eta garbigune mugikorrean berreskuratutako zura (altzariak), burdin eta metalak, eta TEEHak.



2007an, guztira, etxeke gauza handien 800 tona hondakin bideratu ziren birziklatzera; aurreko urtean, berriz, 535 tona.

Aditzera eman behar da 2007. urtean birziklatzera bideratu diren etxeko gauza handiak zabortegira bideratutakoen ia halako bi izan direla.




Etxeko hondakin arriskutsuen gaikako bilketa:

2007. urtean, 10 tona etxeko hondakin arriskutsu jaso ziren garbigunean eta garbigune mugikorrean.

Besteak beste, honako hondakin hauek jaso ziren: pintura zaharkituak, bernizak, kolak, garbiketa-produktuak, disolbatzaile ez-halogenatuak, aerosolak, plastikozko ontziki kutsatuak, metalezko ontziki kutsatuak, auto-bateriak, auto olio erabilia, etab.

Urtea	Etxeko hondakin arriskutsuen bilketa (1)	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	0	0,00
2001	0	0,00
2002	0	0,00
2003	0	0,00
2004	0	0,00
2005	0	0,00
2006	12.689	0,19
2007	10.068	0,15

(1) Garbigunean eta garbigune mugikorrean entregatutako etxeko hondakin arriskutsuak.



Erabiltzen ez diren pneumatikoen gaikako bilketa:


2007. urtean, erabiltzen ez diren pneumatikoen 5 tona bildu ziren garbigunean.

Askoz ere pneumatiko gutxiago bildu izanak ez du esan nahi pneumatiko gutxiago botatzen direnik; izan ere, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzko legedi berriak (1619/2005 ED) ezartzen duenez, era horretako hondakinen Kudeaketa Sistema Integralek (KSI) auto-tailerretan aldatzen dituzten pneumatiko erabiliak jasotzen dituzte dagoeneko.

Kudeaketa horren kostua bezeroak ordaintzen du pneumatiko erabiliak kendu eta berriak jartzeagatik tailerrari ordaintzen dionean. Faktura horretan KSlaren kostua ere biltzen da (gutxi gorabehera 2 euro pneumatiko bakoitzeko).

Urtea	Erabiltzen ez diren pneumatikoen hondakinen bilketa (1)	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	35.910	0,55
2001	52.120	0,80
2002	35.520	0,54
2003	45.180	0,69
2004	10.560	0,16
2005	15.210	0,23
2006	32.500	0,49
2007	5.621	0,08

(1) Erabiltzen ez diren pneumatikoen hondakinak, garbigunean entregatu direnak.




Sukaldeko olio-hondakinen gaikako bilketa:

2007. urtean, sukaldeko olioaren bilketa aurreko urtekoaren antzekoa izan bazen ere, zertxobait jaitsi zen (-% 6).


Honako taula honetan bildutako kopuruak herritarrek garbigune mugikorrean (furgoneta ibiltaria) entregatutako etxeko landare-olioari dagozkio soilik; beraz, kopuru horien barnean ez dira ostalaritza-sektorean landare-olioa berreskuratzeko ontzietan bildutako sukaldeko olioak.

Urtea	Sukaldeko olio-hondakinen bilketa (1)	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	0	0,00
2001	0	0,00
2002	11.655	0,18
2003	16.280	0,25
2004	17.945	0,27
2005	20.621	0,31
2006	24.214	0,37
2007	22.788	0,34

(1) Garbigunean eta garbigune mugikorrean entregatutako sukaldeko olioak.



2007. urtean, sukaldeko olioaren *per capita* bilketaren indizea **0,34 kg** izan zen **biztanle eta urte bakoitzeko**.




Zur-hondakinen gaikako bilketa:

2007. urtean, industrialdeetan nahiz garbigunean bildutako zur-hondakinen (paletak eta antzekoak) kopurua nabarmen igo zen (% 16). Hazkunderik handiena industrialdeetan egiten den bilketan izan zen.

Zur-hondakin horietan, beraz, EZ dira zurezko altzariak barnean hartu, beste zerbitzu baten bidez biltzen baitira.


Urtea	Industrialdeetan bildutako zura	Garbigunean bildutako zura	URTEAN GUZTIRA	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	3.880	14.360	18.240	0,3
2001	0	28.860	28.860	0,4
2002	71.940	13.660	85.600	1,3
2003	270.330	30.380	300.710	4,6
2004	189.744	79.860	269.604	4,1
2005	189.936	173.250	363.186	5,5
2006	284.732	338.980	623.712	9,4
2007	369.744	353.140	722.884	10,8

(1) Ez dira barnean hartu etxeko gauza handiak (zurezko altzariak)



Honako grafiko honetan ikusten denez, zura berreskuratzeari dagokionez **garbigunearen zeregina** oso garrantzitsua da; ikusi besterik ez dago bertan biltzen den kantitatea industrialdeetan ematen den bilketa-zerbitzuak jasotzen duenaren baliokidea dela.

Ildo horretan, tailer eta saltoki txikiek asko balioesten duten instalazioa da garbigunea, ohiko bilketa-zerbitzuaren osagarri edo "komodina" baita.




Metal-hondakinen gaikako bilketa:

2007. urtean, garbigunean entregatuta, 107 tona metal-hondakin bildu ziren (aurreko ekitaldian baino % 14 gutxiago). Hondakin gehienak garbigunea zurak, txatarra eta obra-hondakinak botatzeko erabiltzen duten tailer eta eraikuntzako gremio txikietakoek entregatzen dituzte.

Urtea	Garbigunean entregatutako metal-hondakinak (1)	Per capita bilketa kg/bizt./urte
2000	73.240	1,1
2001	80.520	1,2
2002	63.680	1,0
2003	89.800	1,4
2004	93.420	1,4
2005	90.300	1,4
2006	125.500	1,9
2007	107.800	1,6

(1) Ez dira barnean hartu kalean bildutako etxeko metalezko gauzak.




HIRI HONDAKINEN ISURPENAK 2000-2007 ALDIAN IZAN DUEN BILAKAERA:

Honako taula honetan, Sasieta Mankomunitatearen eremuan hiri-hondakinen (HH) isurpenak 2000-2007 aldian izan duen bilakaera labur-labur bildu da.

Urtea	URTEAN GUZTIRA	Per capita isurpena, kg/bizt./urte
2000	24.902.370	381
2001	24.415.783	374
2002	25.478.650	390
2003	27.162.180	415
2004	23.520.330	359
2005	24.413.969	371
2006	24.196.000	365
2007	23.454.520	349

Taulak agerian uzten du HHen isurpena **etengabe jaisten** ari dela. 2007. urteko isurpen-maila azken zazpi urteotako txikiena da, baita 2004. urtekoa baino txikiagoa ere. Horri dagokionez, hondakinen isurpenak beherakada handia izan zuen urte hartan, batez ere zerbitzu mankomunatu berriak abian jartzeari esker gaikako bilketa izugarri areagotu egin zelako eta lehendik zeuden zerbitzuak hobetu zirelako.


2000-2007 aldian, hiri-hondakinen isurpena % 5,8 jaitsi zen; urtean, batez beste, % 0,8 jaitsi zen.



Segidan, isurpen-indizea jaitea ekarri duten hobekuntza nagusiak zer arlotan izan diren argitzen saiatuko gara.

Honako taula honetan ikusten denez, **etxeko hondakinen (EH)** eremuan jaitsi da gehien isurpen-bolumena. Atal horretan, honako hondakin hauek biltzen dira: etxeetan sortzen diren hondakinak (etxeko zabor-poltsa), merkatuetako hondakinak eta alde zurratik finkatutako egunetan kalean uzten diren etxeko gauza handiak. 2007. urtean, 19.569 tona EH isuri ziren. Kopuru hori isurpen-maila handiena izan zen urtekoa baino askoz ere txikiagoa da, 2002. urtekoa baino askoz ere txikiagoa, alegia; urte hartan 24.003 tona isuri baitziren.

Urtea	EHen GUZTIZKO PARTZIALA	HIPAIMEHen GUZTIZKO PARTZIALA	URTEAN GUZTIRA
2000	23.224.760	1.677.610	24.902.370
2001	23.186.244	1.229.539	24.415.783
2002	24.003.530	1.475.120	25.478.650
2003	23.877.000	3.285.180	27.162.180
2004	19.372.560	4.147.770	23.520.330
2005	19.700.009	4.713.960	24.413.969
2006	20.263.860	3.932.140	24.196.000
2007	19.569.900	3.884.620	23.454.520



EHen isurpenari buruzko datuak gehiago xehekatuz gero, ikusiko dugu berez etxekoak diren hondakinetan izan dela, dirudenez, murrizketarik handiena; izan ere, 2002. urtean inoiz baino tona gehiago bildu ziren, 22.423 tona hain zuzen ere, eta 2007. urtean, berriz, 18.913 tona bildu dira. Merkatuetako eta gauza handien hondakinen isurpenaren ehunekoa, berriz, are gehiago murriztu da.

Urtea	Etxekoak (1)	Merkatuak	Kalean bildutako gauza handiak (2)	EHen GUZTIZKO PARTZIALA
2000	21.531.760	846.980	846.020	23.224.760
2001	21.467.760	796.560	921.924	23.186.244
2002	22.423.120	691.460	888.950	24.003.530
2003	22.366.720	596.380	913.900	23.877.000
2004	18.603.660	283.200	485.700	19.372.560
2005	18.784.200	133.720	782.089	19.700.009
2006	19.506.460	215.060	542.340	20.263.860
2007	18.913.080	206.860	449.960	19.569.900

(1) Bizitegirako area hiritar, erdi-hiritar eta landatarretako kaleetan hondakin bereizi gabeak biltzeko instalatutako edukiontzietako ohiko bilketa.
(2) Aldez aurretik finkatutako egunetan kalean utzitako etxeko gauza handien hondakin-bilketa.

Hala ere, argitu beharra dago 2003. urtera arte etxeko hondakinak eta hiri-hondakinen parekoak diren industrialdeetako bereizi gabeko hondakinak batera biltzen zirela, hartarako ibilgailu berbera erabiliz.

Alabaina, 2004. urteaz geroztik, bilketarako ibilbideak bereizi egin ziren, eta bi hondakin-korronte horiek guztiz bereizita biltzen dira, ibilgailu desberdinetan. Hortaz, ondorioak ateratzeko, azken 3 urteak hartu behar dira aintzat (2004-2007 aldia). Aldi hori aztertuta ikus daitekeenez, etxeko hondakinen bilketa egonkorra da. 2004. urtetik 2007. urtera arte, etxeetako hondakinen isurpena +% 1,7 besterik ez da igo (309 tona). Aditzera eman behar da 2004-2007 aldi horretan, eraginpean hartutako biztanleria % 2,5 igo zela.


EHak ez bezala, “**Hirikoekin pareka daitezkeen industria-, merkataritza- eta erakunde-hondakinen (HIPAIMEH)**” isurpena, itxuraz behintzat, igo egin da 2000-2007 aldian. Izan ere, lehen azaldu dugunez, 2004. urteaz geroztik, industrialdeetan bildutako hiri-hondakinen parekoak diren bereizi gabeko hondakinen nahasteak bereizita kontabilizatzen dira.

Kasu horretan ere, azken 3 urteak (2004-2007 aldia) soilik aintzat hartuz gero, ikus dezakegu HIPAIMEHen bilketak egonkor dirauela, edo zertxobait murriztu dela: -% 6,3 (263 tona).

Urtea	Garbiguneko nahasteak (1)	Industrialdeetako nahasteak (2)	Bestelako industria-hondakin parekagarriak (3)	HIPAI MEHen GUZTIZKO PARTZIALA
2000	294.460	0	1.383.150	1.677.610
2001	237.900	0	991.639	1.229.539
2002	498.780	0	976.340	1.475.120
2003	198.700	0	3.086.480	3.285.180
2004	168.980	2.581.100	1.397.690	4.147.770
2005	181.000	3.000.440	1.532.520	4.713.960
2006	130.800	3.053.260	748.080	3.932.140
2007	143.020	2.939.920	801.680	3.884.620

(1) Garbigunean entregatutako merkataritza- eta industria-hondakinen nahasteak.
(2) Pareka daitezkeen hondakinen nahasteak biltzeko industrialdeetan eta industria-areetan instalatutako edukiontzien bidez bildutakoa. Industrialdeetako bilketa berezia 2004. urtean hasi zen egiten. 2003. urtera arte, ibilgailu berberak jasotzen zituen batera bizitegirako areetako eta industria-areetako hondakinak.
(3) Etxeko hondakinen parekoak diren hondakin-sortzaile handien edo sortzaile berezien hondakinak, zabortegira baliabide propioen bidez zuzenean garraiatuak (honako hondakin hauek hartu dira barnean: merkataritzagune handietakoak, elikadura-industrietakoak, haragi-industrietakoak, kale-garbiketakoak, lorezaintzakoak, etab.). Ez dira barnean hartu ez ur zikinen araztegi-tako lohiak, ez eraikuntza-hondakinak.

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, **hiri-hondakinen (HH) per capita isurpena** 2000-2007 aldiko txikiena da: **349 kg biztanle eta urte bakoitzeko**.




HIRI HONDAKINEN SORKUNTZAK 2000-2007 ALDIAN IZAN DUEN BILAKAERA:


Honako taula honetan, Sasieta Mankomunitatearen eremuan hiri-hondakinen (HH) sorkuntzak 2000-2007 aldian izan duen bilakaera labur-labur bildu da.

Urtea	HHen urteko isurpena (kg/urte)	HHen urteko Gaiako bilketa (kg/urte)	HHen urteko sorkuntza (kg/urte)	HHen urteko per capita sorkuntza (kg/bizt./urte)	HHen eguneko per capita sorkuntza (kg/bizt./urte)
2000	24.902.370	5.274.078	30.176.448	462,2	1,266
2001	24.415.783	5.197.290	29.613.073	454,2	1,244
2002	25.478.650	5.369.971	30.848.621	471,7	1,292
2003	27.162.180	6.057.274	33.219.454	507,9	1,392
2004	23.520.330	7.688.689	31.209.019	476,8	1,306
2005	24.413.969	7.946.936	32.360.905	491,5	1,347
2006	24.196.000	8.479.829	32.675.829	492,7	1,350
2007	23.454.520	9.055.502	32.510.022	484,3	1,327


2000-2007 aldian, sortzen diren hondakinen kopurua % 7,7 igo da, hau da, urtean batez beste % 1,1 igo da. Hazkunde hori oso neurrizkoa da, batez ere 2000-2007 aldi horretan biztanleria % 2,8 hazi dela kontuan izanik.



2007. urteko **hondakin-sorkuntzaren per capita indizea** aurreko urtekoaren berdintsua da (% 0,5 jaitsi da): **484,3 kg** biztanle eta urte bakoitzeko, hau da, **1,327 kg** biztanle eta egun bakoitzeko.



**HIRI HONDAKINEN EGUNEROKO SORKUNTZA PER
CAPITA K SASIETA MANKOMUNITATEAN 2000-2007
ALDIAN IZAN DUEN BILAKAERA (kg/bizt./urte):**



HIRI HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAK 2000-2007 ALDIAN IZAN DUEN BILAKAERA:


Honako taula honetan, Sasieta Mankomunitatearen eremuan hiri-hondakinen (HH) gaikako bilketak 2000-2007 aldian izan duen bilakaera labur-labur bildu da.

Urtea	Urtean, guztira (1) kg/urte	Per capita kantitatea kg/bizt./urte	Guztira sortutakoarekiko %-a
2000	5.274.078	80,8	%17,5
2001	5.197.290	79,7	%17,6
2002	5.369.971	82,1	%17,4
2003	6.057.274	92,6	%18,2
2004	7.688.689	117,5	%24,6
2005	7.946.936	120,7	%24,6
2006	8.479.829	127,9	%26,0
2007	9.055.502	134,9	%27,9

(1) Gaika bildutako eta birziklaturako, konpostajera, balorizazio energetikora eta kudeaketa berezira bideratutako hiri-hondakinak.


Aurreko taulan ikus daitekeenez, azken zazpi urteotan gaikako bilketa izugarri hazi da; hain zuzen ere, aldi horren hasieran 5.274 tona bildu ziren urtean eta 2007. **urtean 9.055 tona** bildu dira; hau da, bilketa hori % 71,7 hazi da aintzat hartutako aldi horretan, eta **urteko batez besteko hazkundea % 10,2koa** izan da.

**HIRI HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAK SASIETA
MANKOMUNITATEAN 2000-2007 ALDIAN IZAN DUEN
BILAKAERA (kg/urte)**



■ Gaika bildutako eta birziklatzera, konpostajera, balorizazio energetikora eta kudeaketa berezira bideratutako hiri-hondakinak

Zifra handi horiekin ez da ondo ulertzen gaikako bilketa egiteko HHak jatorrian bereizteko herritarrek egindako ahalegina; hortaz, hori ulertzea ahalbidetuko duten indizeak erabiliko ditugu. Hain zuzen ere, **herritar bakoitzak urtean 134,9 kg hondakin bideratu zuen gaikako bilketara**, hau da, 2000. urtean baino 54 kg gehiago biztanle bakoitzeko.




Birziklatzera, konpostajera, balorizazio energetikora eta kudeaketa berezira bideratutako hiri-hondakinak eta zabortegira bideratutako hiri-hondakinak alderatuz gero, ikus daiteke 2007. urtean **gaikako bilketa sortutako hondakin guztien % 27,9 izan zela, azken zazpi urteotako ehunekorik handiena, alegia.**

Gure ustez, gero eta zailagoa izango da gaikako bilketaren ehuneko handiagoa izatea, berez, oraingo ehunekoa oso handia baita. Are gehiago, oso litekeena da urte gutxi barru % 30en inguruko ehunekora iritsita muga jotzea. Ikusi besterik ez dago azken 3 urteotan (2004-2007 aldia) gaikako bilketaren batez besteko hazkundera txikiagoa izan zela, % 5,9koa, 2000-2007 aldikoa baino nabarmen txikiagoa, aldi horretan urteko batez besteko hazkundera % 10,2koa izan baitzen.

Orain, gaikako bilketaren ehunekoa nabarmen areagotzeko eta zabortegiko desbideratze-indizea igotzeko modu bakarra konpostajea izugarri areagotzea litzateke. Horretarako, etxeko materia organiko biodegradagarriaren eta sortzaile handien jatorrizko gaikako bilketa ugaritu beharko litzateke, "bosgarren edukiontzia" deritzan giltzadun edukiontzi marroiak jarrita.

Apustu horren bitartez, urte batzuen buruan gaikako bilketaren ehunekoa 5-10 puntu areagotzea lortu ahal izango litzateke, betiere, herritarren parte-hartzearen arabera, eta, beraz, birziklatzearen eta konpostajearen maila, oro har, % 35-40raino igoko litzateke.




ONDORIO GISA:

Sasieta Mankomunitatearen eremuko hiri-hondakinen (HH) sorkuntza, gaikako bilketa eta isurpenari buruzko **2000-2007 aldiko** datuak aztertuta, ondorio gisa, honako **alderdi positibo** hauek nabarmendu beharko lirateke:


1. Hiri-hondakinen **isurpena % 5,8 jaitsi da** aintzat hartutako aldi horretan, eta **urtean, batez beste, % 0,8 jaitsi da**.
2. Hiri-hondakinen **gaikako bilketa** izugarri hazi da (% 71,7), eta aintzat hartutako aldi horretan, urteko **batez besteko hazkundea % 10,2koa** izan da.
3. Hiri-hondakinen **sorkuntza % 7,7 igo da; urtean, batez beste, % 1,1 igo da**. Hazkunde hori oso neurritzkoa izan da, batez ere aldi horretan biztanleria % 2,8 hazi zela kontuan izanik.
4. Era berean, bereziki aipatu beharra dago HHen sorkuntzaren gorakadarekin batera (2.333 tona), gaikako bilketa **are gehiago hazi** dela (3.781 tona), eta, beraz, isurpena jaitsi egin dela (1.447 tona). Bestela esanda, gaika bildutako tona kopurua sortu diren hondakinen gorakadari dagokion tona kopurua (2.333 tona) baino handiagoa da (1.447 tona gehiago) .

2000-2007 aldia	HHen urteko Isurpenaren aldea (kg/urte)	HHen urteko Gaiako Bilketaren aldea (kg/urte)	HHen urteko Sorkuntzaren aldea (kg/urte)
	-1.447.850	3.781.424	2.333.574

**HIRI HONDAKINEN ISURPENAK ETA GAIKAKO BILKETA
SASIETA MANKOMUNITATEAN 2000-2007 ALDIAN IZAN DUEN
BILAKAERA (kg/urte)**



**HH-EN GAIKAKO BILKETA ETA ISURPENA
SASIETA MANKOMUNITATEAN 2007 URTEAN**



■ HHen urteko isurpena (kg/urte) ■ HHen urteko Gaiako bilketa (kg/urte)